

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. APARTAMENTU TURISTIKOAK ETA OROTARAKOAK. 2020KO MARTXOA

Euskal AEko hotel, landa-ostatu eta apartamentu turistikoen sarrerek % 71,7ko beherakada gogorra izan zuten 2020ko martxoan

Euskal AEko apartamentu turistikoetan eskaintako plazak % 37,3 murriztu dira martxoan

Hotelen, landa-ostatuen eta turismo-apartamentuen multzo osoan 72.432 sarrera erregistratu ziren 2020ko martxoan, hau da, % 71,7ko jaitsiera izan zen aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta, Eustatek egindako datuen arabera. Bizkaian, zeinek Euskal AEko sarrera guztien % 46,0 biltzen dituen, sarreren batura % 72,3 murriztu da. Gipuzkoan Erkidegoko sarreren % 41,6 biltzen dira, eta % 70,5 jaitsi da batura, eta Araban, Euskal AEko sarreren % 12,4rekin, % 72,9koa izan da beherakada.

Aztertutako establezimendu guztietan, gualdiak ia antzera hondoratu dira: 2020ko martxoan gualdiak % 65,3 gutxiago izan dira 2019ko martxoan baino. Bizkaian gualdiak % 66 jaitsi dira, Araban % 64,5 eta Gipuzkoan % 64,8.

Gualdiak eta sarrerak Euskal AEko hotel, landa ostatu eta apartamentu turistikoetan. 2020ko Martxoa

	Gualdiak		Sarrerak	
	2020/03	m/m-12 (%)	2020/03	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	167.914	-65,3	72.432	-71,7
Araba/Álava	24.307	-64,5	8.954	-72,9
Bizkaia	76.889	-66,0	33.319	-72,3
Gipuzkoa	66.717	-64,8	30.159	-70,5

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

COVID-19AREN KRISIAREN ERAGINAK 2020KO MARTXOKO ESKAINTZAN

COVID-19ren pandemia globalak eragindako krisiak eragin handia izan du Euskal AEn ostatatzerako bideraturiko ostalaritza-sektorean. Hotelen, landa-ostatuen eta turismo-apartamentuen multzoan, 2020ko martxo osoan zehar itxita egon den establezimendu-kopurua % 63,3 igo da, bikoitza baino gehiago Bizkaian (% 130), % 65,4 Araban eta % 29,7 Gipuzkoan, 2019ko martxoarekin alderatuta.

Gainera, joan den martxoan atek ireki dituzten establezimenduak batez beste 15,1 egunez itxita egon dira, baina 2019ko martxoan batezbesteko hori ez zen egun bakarrera iritsi. Lurraldeka, aldeak urriak dira: Gipuzkoan 14,6 egunez itxita egon dira batez beste, eta Araban 15,5. Bizkaian 15,4 egun izan ziren. Horren ondorioz, aztertutako ostalaritza-establezimenduen multzoan plazen eskaintzak

% 45,2ko murrizketa gogorra izan du Euskal AE osoan, lurraldeen arteko alde txikiekin: % 39,2 gutxiago Araban, % 44,6 gutxiago Bizkaian eta % 48,5 gutxiago Gipuzkoan.

Hala eta guztiz ere, joan den martxoko egunen batean irekita egon diren hotelen, landa-ostatu eta apartamentuen kopuruak ez du ia aldaketarik izan (-% 0,1 Euskal AEn) edo, Gipuzkoako kasuan bezala, zertxobait gora egin du (% 1,2 gehiago aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta).

Hotel, landetxe eta apartamentu turistiko irekiak guztira, eskainitako plazak, itxitako egunen batez bestekoa eta establezimendu itxitak Euskal AEn. 2020ko Martxoa

	Euskal AE			Araba/Álava			Bizkaia			Gipuzkoa		
	2020/03	2019/03	m/m-12 (%)	2020/03	2019/03	m/m-12 (%)	2020/03	2019/03	m/m-12 (%)	2020/03	2019/03	m/m-12 (%)
Establezimendu irekiak	1.608	1.609	-0,1	397	400	-0,7	554	560	-1,1	657	649	1,2
Eskainitako plazak hileko	612.104	1.117.597	-45,2	112.032	184.314	-39,2	275.682	497.184	-44,6	224.390	436.099	-48,5
Itxitako egunen batez besteko	15,1	0,7	-	15,5	0,7	-	15,4	0,8	-	14,6	0,6	-
Establezimendu itxitak	289	177	63,3	43	26	65,4	115	50	130,0	131	101	29,7

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Apartamentu turistikoak

Euskal AEko apartamentu turistikoetan 2020ko martxoan 11.446 gualdi erregistratu dira, hau da, aurreko urteko martxoan baino % 44,5 gutxiago. Gualdiak % 56,4 jaitsi dira Bizkaian, % 46,5 Araban eta % 24,5 Gipuzkoan.

Euskal AEko apartamentu turistikoetan bidaiarien sarrerak 2.110 izan dira 2020ko martxoan, hau da, % 65,3ko beherakada izan da aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta. Sarrerak % 50 jaitsi dira Araban, % 70,3 Bizkaian eta % 63,7 Gipuzkoan.

Batez besteko egonaldia 5,42 egunekoa izan da azken martxoan, 2019ko martxoan batez beste izandako 3,39 egunen gainetik. Araban, iazko batez besteko egonaldia 8,76 egunekoa izatetik aurtengo martxoan 9,37 egunekoa izatera igaro da; Bizkaian 2,57 egunekoa izatetik 3,77 egunekoa izatera igaro da, eta Gipuzkoan ere batez besteko egonaldia igo da, 2019ko martxoan 2,59 egunekoa izatetik 2020ko martxoan 5,38 egunekoa izatera.

Gaualdiak, sarrerak eta batez besteko egonaldia Euskal AEko apartamentu turistikoetan. 2020ko Martxoa

	Gaualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia	
	2020/03	m/m-12 (%)	2020/03	m/m-12 (%)	2020/03	2019/03
EUSKAL AE	11.446	-44,5	2.110	-65,3	5,42	3,39
Estatukoak	8.620	-40,8	1.433	-68,6	6,02	3,19
Atzeritarrak	2.826	-53,3	677	-55,7	4,17	3,96
ARABA/ÁLAVA	3.749	-46,5	400	-50,0	9,37	8,76
Estatukoak	3.115	-36,7	340	-53,2	9,15	6,76
Atzeritarrak	634	-69,7	60	-17,8	10,61	28,76
BIZKAIA	3.519	-56,4	933	-70,3	3,77	2,57
Estatukoak	2.456	-57,2	571	-75,7	4,30	2,44
Atzeritarrak	1.063	-54,5	362	-54,6	2,94	2,93
GIPUZKOA	4.177	-24,5	777	-63,7	5,38	2,59
Estatukoak	3.049	-21,9	521	-64,8	5,85	2,63
Atzeritarrak	1.128	-30,8	255	-61,2	4,42	2,48

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

COVID-19AREN KRISIAREN ERAGINAK APARTAMENTU TURISTIKOEN ESKAINTZAN 2020KO MARTXOAN

Euskal AEko apartamentu turistikoetako plazen eskaintza % 37,3 murriztu da, eta 51.438 plazatar mugatu da azken martxoan, 2019ko martxoan eskainitako 82.049 plazen aldean. Proportzioan, Araban izan da murrizketarik handiena (-% 42); ondoren, Gipuzkoan (-% 38) eta, azkenik, Bizkaian (-% 32).

Beherakada hori gertatu da martxo osoan itxita egon ziren apartamentuen kopuruak gora egin duelako (103 apartamentu 2020an, eta 40 apartamentu 2019an), bai eta hileko egunen batean itxi zirengatik ere. 2019ko martxoan, batez beste, apartamentuak 0,5 egunez itxita egon ziren, baina aurten hilabete erditik gora egon dira itxita: 15,1 egun. Araban egunen kopurua batezbestekoa baino handiagoa izan zen, 16 egunekoa, Gipuzkoan 15,4 egunekoa eta Bizkaian 14 egunekoa.

Azkenik, egunen bat irekita zeuden apartamentuen eskaintza 2019ko martxoko 717 apartamentuetatik azken martxoko 747 apartamentuetara igo zen, hau da, % 4,2 gehiago.

Apartamentu irekiak, eskainitako plazak, itxitako egunen batez bestekoa eta establezimendu itxitak Euskal AEn. 2020ko Martxoa

	Euskal AE			Araba/Álava			Bizkaia			Gipuzkoa		
	2020/03	2019/03	m/m-12 (%)	2020/03	2019/03	m/m-12 (%)	2020/03	2019/03	m/m-12 (%)	2020/03	2019/03	m/m-12 (%)
Establezimendu irekiak	747	717	4,2	246	246	0,0	254	245	3,7	247	226	9,3
Eskainitako plazak hileko	51.438	82.049	-37,3	16.408	28.272	-42,0	19.275	28.359	-32,0	15.755	25.418	-38,0
Itxitako egunen batez bestekoa	15,1	0,5	-	16,0	0,0	-	14,0	1,0	-	15,4	0,3	-
Establezimendu itxitak	103	40	157,5	14	4	250,0	50	7	614,3	39	29	34,5

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62